Gauzatzeko epea: 6 hilabete.

3.- IZAPIDEAK, PROZEDURA ETA ESLEITZEKO ERA:

Izapideak: ohikoak.

Prozedura: irekia.

Esleitzeko era: lehiaketa.

4.- LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA: 123.221,83 euro.

5.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA: 2.464,44 euro.

6.- AGIRIAK ETA ARGIBIDEAK ESKURATZEA: Udal bulegoak (Uribea kalea, 12. Durana). Tl: 945-299516.

Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: 26 egun iragarki hau argitaratu ondoren.

7.- KONTRATISTAREN BERARIAZKO BETEBEHARRAK: sailkapena: K, 8, C.

8.- ESKAINTZAK EDO PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Aurkezteko azken eguna: Iragarki argitaratu eta 26 egunetara, 14:00etan.

Aurkeztu beharreko agiriak: Baldintzen pleguaren 18. artikulua.

Eskaintzak aurkezteko lekua:

- Erakundea: Arrazua-Ubarrundiako Udala.

9.- ESKAINTZAK IREKITZEA: Proposamenak udaletxean aurkezteko epea amaitu eta laugarren egun baliodunera.

10.- IRAGARKI GASTUAK: esleipendunak ordainduko ditu.

Durana, 2004ko ekainaren 16a.– Alkatea, RUFINO SÁEZ DE IBARRA RUIZ DE ARBULO.

## BARRUNDIA

**4.102**

### Iragarkia

Udal honek, 2004ko apirilaren 2ko bilkuran, Animaliak Edukitzeari eta Babesteari buruzko Ordenantza onartzeko egindako espedienteari hasierako onarpena eman zion. Espediente hori jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartzen da. Beraz, Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, oso-osorik ematen da argitara indarrean sar dadin.

### ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

HITZAURREA

Udalari ondoko lege hauek ematen dioten eskumenen arabera eman da ordenantza hau: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legea; Euskal Autonomia Elkartearen urriaren 29ko 6/1993 Legea, Animaliak Babesten dituena; eta, azkenik, abenduaren 23ko 50/1999 Legea, Arriskutsuak izan daitezkeen Animalien Araubide Juridikoari buruzkoa.

I. KAPITULUA.- XEDEAK ETA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua.- Ordenantza honek Barrundian edozein animalia edukiz gero (lagun egiteko izan ala ez) bete beharreko arauak ezartzea du xede; horrela, animalien eta pertsonen elkarbizitzak eta horrek ingurumen sanitateari nahiz pertsona eta ondasunen lasaitasunari, osasunari eta segurtasunari dagokienez sor litzakeen arriskuen arteko harmonia bermatuko da.

Horretarako, trатuari, higieneari eta zainketari dagokienez animaliek gutxienez jaso beharreko atentzioak finkatu, eta establezimendu berezietan egoteari, osasun-sorospenari, merkaturatzeari eta saltzeari buruzko arauak ezartzen ditu.

2. artikulua.- Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Arautegian eta indarrean dauden Hirigintza Ordenantzetan xedatutakoaren arabera, udal lizentzia eskuratu beharko da ondorengo jarduerak burutu ahal izateko:

a) Industria izaerako abelazkuntza-etxaldeak. Animalietatik ateratako edozein produktu ekoizten dutela ere: haragia, esnea, arrautzak, eztia, larrua edo beste produktu batzuk.

b) Hipikarako establezimenduak, finkoak nahiz denboraldikoak izan, baldin eta bertan ekitaziorako zaldiak badaude, turismorako, kiroletako zein jolaserako xede dutenak.

Plazo de ejecución: 6 meses.

3.- TRAMITACIÓN, PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN:

Tramitación: Ordinaria.

Procedimiento: Abierto.

Forma: Concurso.

4.- PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN: 123.221,83 euros.

5.- GARANTÍA PROVISIONAL: 2.464,44 euros.

6.- OBTENCIÓN DE DOCUMENTACIÓN E INFORMACIÓN: Oficinas Municipales, calle Uribea 12, Durana. Tl.: 945-299516.

Fecha límite de obtención de documentos e información: 26 días naturales tras la publicación de la presente.

7.- REQUISITOS ESPECÍFICOS DEL CONTRATISTA: Clasificación: K, 8, C.

8.- PRESENTACIÓN DE LAS OFERTAS O DE LAS SOLICITUDES DE PARTICIPACIÓN:

Fecha límite de presentación: 26 días naturales tras publicación a las 14:00 horas.

Documentación a presentar: Artículo 18 pliego de condiciones.

Lugar de presentación:

- Entidad: Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia.

9.- APERTURA DE LAS OFERTAS: Cuarto día hábil tras fin de plazo de presentación de proposiciones en el Ayuntamiento.

10.- GASTOS DE ANUNCIOS: A cargo del adjudicatario.

Durana, a 16 de junio de 2004.– El Alcalde, RUFINO SÁEZ DE IBARRA RUIZ DE ARBULO.

## BARRUNDIA

**4.102**

### Anuncio

Habiendo sido aprobado inicialmente por este Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 2 de abril de 2004, el expediente confeccionado para aprobar la Ordenanza Reguladora de la tenencia y protección de animales, y no habiéndose presentado reclamaciones durante el período de su exposición al público, queda definitivamente aprobado. Por lo que a efectos de lo establecido en el artículo 16.4 de la Norma Foral 41/1989, reguladora de las Haciendas Locales, se lleva a cabo su publicación íntegra para su entrada en vigor.

### ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA TENENCIA Y PROTECCIÓN DE ANIMALES

PREÁMBULO

La presente Ordenanza se dicta en virtud de las competencias atribuidas al Ayuntamiento por la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local y la Ley de la Comunidad Autónoma del País Vasco 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales, así como conforme a lo establecido en la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales Peligrosos.

CAPÍTULO 1°.- OBJETIVOS Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

Artículo 1°.- Esta Ordenanza tiene por objeto regular la tenencia de toda clase de animales, tanto sean de compañía o no, en el Término Municipal de Barrundia, armonizando la convivencia de los mismos y las personas con los posibles riesgos para la sanidad ambiental, y la tranquilidad, salud y seguridad de personas y bienes.

Para ello, fija las atenciones mínimas que han de recibir los animales en cuanto al trato, higiene y cuidado, protección y transporte, y establece las normas sobre su estancia en establecimientos especializados, atención sanitaria, comercialización y venta.

Artículo 2°.- Estarán sujetas a la obtención de Licencia Municipal según lo dispuesto en el Reglamento de Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas y en las Ordenanzas Urbanísticas en vigor, las actividades siguientes:

a) Granjas de explotación pecuaria de carácter industrial. Tanto para producción de carne, leche, huevos, miel, piel, y otros productos de origen animal.

b) Establecimientos hípicos, sean fijos o de temporada, que alberguen caballos para la práctica de la equitación con fines turísticos, deportivos o recreativos.

c) Etxekotuta bizitzeko, ehizarako zein zientzia-erabileretarako animaliei dagokienez, honetarako diren zentroak: animalia horien ugalketarako, horiek aldi baterako nahiz betiko hartzeko, eta saldu edo emateko.

d) Animalia etxekotu nahiz basatien salerosketarako establezimenduak.

e) Albaitarien kontsultategi, klinika eta ospitaleak.

f) Kanodromo, zirku eta zooak, ibiltariak izan ala ez, eta antzeko jarduerak.

3. artikulua.- Udalerriko animaliak hazi, saldu edo aldi batean bertan edukitzeko establezimenduak zaindu eta ikuskatuko ditu udalak, bai eta animaliak zaintzeko instalazio sanitarioak eta bazterrera utzitako animaliak jasotzeko zentroak ere.

2. KAPITULUA.- DEFINIZIOAK

4. artikulua.- Honakoa da lagun egiten duen animalia: etxekotua edo basatia izan, gizakiak mantentzen duena, etxean batez ere, jolaserako, heziketarako edo apaingarrirako xederen baterako, betiere irabazteko xedez egindako jardueraren baterako ez bada.

Ustiaketarako animalia: gizakiaren ingurunean egokituta izanik, hark mantentzen duena, irabazteko xederen bat tarteko (berarenak ala berak sortutako produkzioenak).

Bazterrera utzitako animalia: jaberik ez duena, ez eta helbide ezagunik, eta datu horiek jakitea ahalbidetzen duen identifikazio sistemarik ez duena.

3. KAPITULUA.- ARAU OROKORRAK

5. artikulua.- Oro har, baimenduta dago lagun egiteko animaliak edukitzea etxe partikularretan, baldin eta animaliak etxean hartzeko baldintzei, instalazioen egokitasunari eta animalia kopuru eta bolumenari begiratuta horretarako aukerarik badago, bai ikuspuntu higienikosanitariotik, bai eta auzokide edo, oro har, beste pertsona batzuenganako edo animalia berarenganako arrisku edo trabarik ekarriko duen inongo egoerarik ez sortzeari (berezko izaeraren eraginez sortutakoak izan ezik) dagokion aldetik.

6. artikulua.- Barrundiako hiriguneetan debekatuta dago ustiaketarako animaliak edukitzea hazkuntzarako, eta ezin izango da halakorik eduki etxe partikular, terraza, zabaltza, ganbara, garaje, trasteleku, soto edo patioetan.

7. artikulua.- Animalia basatiak edukitzeko parke zoologikoetatik edo hartarako jarritako lekuetatik kanpo, berariazko baimena behar izango da, eta jabeak hartu beharko du inongo arriskurik ez egotearen eta auzokideei trabarik ez egitearen ardura. Horretarako, debekatuta dago animalia horiek aske uztea kanpoaldean edo publikoarentzat zabaldutako lokaletan.

4. KAPITULUA.- ANIMALIEN BABESA

8. artikulua.

a) Animaliak ondo egon daitezen, horiei janari eta zaintza egokiak eman beharko dizkiete animalien jabeek, izan ditzaketen gaixotasunak tratatzeko eta sendatzeko; gainera, agintariek ezarritako neurri administratibo zein sanitario prebentiboak aplikatu beharko dizkiete. Era berean, espezie bakoitzaren ezaugarrien araberako egoteko lekua eman beharko diete jabeek animaliei.

b) Jaberen batek uste badu animalia batek gaitz kutsakorren bat izan dezakeela, albaitariari jakinaraziko dio. Diagnostikoak baiezko emaitza erakutsi eta pertsonak kutsatzeko arriskua badago, baldin eta ez badago sendabiderik eta albaitariaren erabakia tarteko, animalia akabatu egin beharko da, eutanasia bidez eta jabearen kontura. Era berean, gaixotasun kroniko sendaezinak edo mutilazio mingarriak dituztenak, bai eta oinaze handi eta baretuezinak dituztenak ere, akabatu egin beharko dira, minik emango ez dien prozedura baten bitartez.

9. artikulua.- Animaliak ongi babestuta egon daitezen, berariaz debekatuta egongo da:

a) Animaliei tratu txarrak ematea, edo arrazoitu gabeko oinaze edo minak eragingo dizkien edozein gauza egitea.

b) Animaliak bazterrera uztea kanpoaldean, edota luzaroan atera gabe izatea.

c) Animaliak mutilatzea, honakoetan izan ezik: albaitarien kontrolpean egiten bada, beharra egoteagatik egiten bada; behar funtzionalak eraginda egiten bada; edota arraza zehatz batzuetarako aho batez onartuta dauden ezaugarri estetikoak gordetzeagatik egiten bada.

c) Centros destinados a la reproducción, alojamiento temporal o permanente y/o suministro de animales para vivir en domesticidad en los hogares, para la caza o para usos científicos.

d) Establecimientos para el comercio de animales domésticos y salvajes.

e) Consultorios, clínicas y hospitales veterinarios.

f) Canódromos, circos y zoos, sean ambulantes o no, y actividades similares.

Artículo 3°.- El Ayuntamiento vigilará e inspeccionará los establecimientos de cría, venta, mantenimiento temporal de animales, instalaciones sanitarias para su cuidado, así como los centros de recogida de animales abandonados del término municipal.

CAPÍTULO 2°.- DEFINICIONES

Artículo 4°.- Animal de compañía: Todo aquel mantenido por el hombre, principalmente en su hogar, que se poseen con un objetivo lúdico, educativo u ornamental, ya sean domésticos o silvestres, sin que exista actividad lucrativa alguna.

Animal de explotación: Todos aquellos que adaptados al entorno humano sean mantenidos por el hombre con fines lucrativos, bien de ellos mismos o de las producciones que generan.

Animal abandonado: Se considera animal abandonado aquel que no tenga dueño, ni domicilio conocido, ni posea sistema de identificación alguno que permita conocer estos datos.

CAPÍTULO 3°.- NORMAS DE CARÁCTER GENERAL

Artículo 5°.- Se autoriza con carácter general la tenencia de animales domésticos de compañía en los domicilios particulares, siempre que las circunstancias del alojamiento, la adecuación de las instalaciones y el número y volumen de los animales lo permitan, tanto desde el punto de vista higiénico-sanitario como por la no existencia de ninguna situación de peligro o de molestia para los vecinos o para otras personas en general, o para el animal, que no sean las derivadas de su propia naturaleza.

Artículo 6°.- Queda prohibida dentro de los núcleos urbanos del Municipio de Barrundia la posesión de animales de explotación para su cría, impidiéndose su estabulación en domicilios particulares, terrazas azoteas, desvanes, garajes, trasteros, bodegas o patios.

Artículo 7°.- La tenencia de animales salvajes fuera de los parques zoológicos o áreas destinadas al efecto requerirá autorización expresa, responsabilizándose el propietario de la total ausencia de peligros y molestias al vecindario. A tal efecto se prohíbe dejar sueltos a estos animales en espacios exteriores o locales abiertos al público.

CAPÍTULO 4°.- DE LA PROTECCIÓN DE LOS ANIMALES

Artículo 8°.

a) Los propietarios o tenedores de animales estarán obligados a proporcionarles la alimentación y cuidados adecuados para su óptimo bienestar, tanto en el tratamiento de sus enfermedades como de curas, así como a aplicar las medidas administrativas y sanitarias preventivas que las Autoridades dispongan. De igual forma, les proporcionarán un alojamiento acorde con las exigencias propias de su especie.

b) Cuando un propietario o tenedor considerara que un animal pudiera padecer una enfermedad transmisible, lo pondrá en conocimiento de su veterinario. Si el resultado del diagnóstico fuera positivo, con riesgo de contagio para las personas, si no existe posibilidad de tratamiento y con la decisión veterinaria correspondiente, deberá ser sacrificado mediante un procedimiento eutanásico con cargo al propietario. De igual forma, aquellos animales que padezcan afecciones crónicas incurables, mutilaciones dolorosas, o en general las que supongan un sufrimiento intenso e irreversible para el animal, serán igualmente sacrificados mediante un procedimiento indoloro.

Artículo 9°.- Para una eficaz protección de los animales, queda expresamente prohibido:

a) Maltratar a los animales o someterlos a cualquier práctica que les pueda producir sufrimientos o daños y angustia injustificados.

b) Abandonar los animales en espacios exteriores y/o mantenerlos encerrados durante largo tiempo.

c) Practicar a los animales mutilaciones, excepto las controladas por veterinarios en caso de necesidad, por exigencia funcional o para mantener las características estéticas unánimemente aceptadas para algunas razas concretas.

d) Animaliei alkohola, drogak edo botikak ematea, edo min fisiko zein psikikoak eragin ahal dizkien edozein manipulazio artifizial burutzea, nahiz eta lehiaketaren batean errendimendua handitzeko izan.

e) Berezkoak ez dituen portaerak eta jarrerak hartzera behartzea, edo animalienganako tratu iraingarria dakartenak.

f) Txakur borrokak eta oilar borrokak.

g) Bide publikoan animaliak hiltzea, derrigorrezkoa ez bada eta beste irtenbiderik ez badago.

h) Animaliak saldu, utzi edo ematea 14 urtetik beherako pertsonei edo ezgaituei, tutoretza edo guraso-agintea duenak baimena eman ez badu.

i) Animaliak kalez kale saltzea, baimendutako azoka eta merkatuetan ez bada.

j) Animaliak saltzea administrazioaren kontrolpean ez dauden laborategi edo klinikei.

k) Animaliak ematea publizitaterako deigarri, edo sari edo donari gisa, baldin eta animalien kostubidezko salerosketak eragindako negozio juridikoak ez badira.

10. artikulua.- Debekatuta dago, batez ere, animaliak bazterrera uztea. Udalari dagokio bazterrera utzitako animaliak batzea. Udal zerbitzuek etxeetatik hartuko dituzte jabeek bazterrera utzi nahi dituzten animaliak, jabeek horretarako ezarrita dagoen prezio publikoa ordaindu ondoren.

5. KAPITULUA. ANIMALIAK IDENTIFIKATZEA ETA ERROLDAN SARTZEA

11. artikulua.- Animalia guztiak egon behar dira erroldatuta, eta guztiek izan behar dute osasun liburuxka. Behar bezala baimendutako mikrotxip elektroniko baten bidez identifikatuko dira animaliak, lepoaren ezkerraldean jarriko zaiena.

Animalia horien jabeek honako betebehar hauek izango dituzte:

1.- Hiriko bide eta gune publikoetan, bai eta higiezin kolektiboetan komunak diren zatietan ere, txakurrak kontrolpean eraman beharko dira, animalia bakoitzaren ezaugarriei egokitutako uhal batez oratuta.

2.- Txakurrek denbora gehiena lotuta egon behar badute, lotzeko uhalaren luzera ezin izango da animaliaren luzera hiru aldiz baino txikiagoa izan; muturretik hasi eta isatseraino neurtuko da animaliaren luzera.

Txakurra elementu finko bati lotuta egongo da, eta elementu hori txakurraren txabolatik distantzia egoki batera egongo da, bertara erraz eta era batean sartu ahal izateko, bai eta janaren eta edariaren ontzietara heldu ahal izateko ere.

Edozein modutan ere, egunean gutxienez ordu bete aske utzi beharko da, kirola egin ahal dezan, honakoetan izan ezik: txakurra lotzen duen uhal, katea edo antzekoa (eusteko elementu finkotik lokarriraino neurtuta) animalia bera baino hamar aldiz luzeagoa bada; horrelakoetan, astean hiru ordu utzi beharko da aske.

3.- Etxebizitzetan hesi edo itxiturarik gabeko gune atxikiak daudenean, edo hesiak izanda ere horiek nahikoa ez direnean, jabea ez dagoenean txakurrak lotuta egongo dira, 2. puntuan adierazten den moduan.

4.- Jabearen kontrolpean egon beharko dira orube, obra, lokal edo antzeko beste establezimendu batzuetako txakur zaintzaileak, pertsonei edo ondasunei kalterik ez eragiteko, eta, batez ere gauez, herritarren lasaitasuna ez nahasteko.

Jabea ez dagoenean, txakur horiek aske egon ahal izango dira baldin eta orube, obra, lokal edo establezimenduak hesi edo itxitura egokia badu.

5.- Txakurrak aske dabiltzan leku itxietan, horiek han daudela jakinarazi beharko da ondo ikusten den lekuren batean eta modu egokian.

6.- Txakur baten jabea, edo hartaz baliatzen dena, txakurrak eragin ahal dituen kalte-galera eta traben erantzule izango da, nahiz eta txakurrak ihes egin edo galdu, Kode Penalak 1905 artikuluan xedatutakoarekin bat.

6. KAPITULUA.- ANIMALIEN OSASUN KONTROLA

12. artikulua.- Animaliak barruratzeko edota bakartzeko agindua emango du udalak, baldin eta animalia horiei gaixotasun kutsakorren bat diagnostikatu bazaie, edo horrelako gaixotasunen sintomarik badute, eta gaixotasun horiek kutsatu ahal bazaizkie gizakiari edo beste animalia batzuei; gauza bera egingo du udalak animalia horiek gizakiari erasorik egin badiote.

d) Suministrar a los animales alcohol, drogas o fármacos o practicarles cualquier manipulación artificial que pueda producirles daños físicos o psíquicos, aun cuando sea para aumentar el rendimiento de una competición.

e) Imponerles la realización de comportamientos y actitudes ajenas e impropias de su condición o que impliquen trato vejatorio.

f) Las peleas de perros y gallos.

g) Sacrificar animales en la vía pública, salvo en los casos de extrema necesidad y fuerza mayor.

h) La venta, donación o cesión de animales a personas menores de 14 años o a personas incapaces sin la autorización de quien tenga la patria potestad o la tutoría.

i) La venta ambulante de animales salvo en ferias o mercados autorizados.

j) La venta de animales a laboratorios o clínicas sin control de la Administración.

k) La donación de animales como reclamo publicitario, premio o recompensa, a excepción de negocios jurídicos derivados de la transacción onerosa de aquéllos.

Artículo 10°.- Queda especialmente prohibido el abandono de animales. Corresponderá al Ayuntamiento la recogida de los animales abandonados. Los Servicios Municipales procederán a la retirada domiciliaria de los animales de los que quieran desprenderse sus propietarios, previo abono del precio público establecido al efecto.

CAPÍTULO 5°. DE LA IDENTIFICACIÓN Y CENSO DE ANIMALES

Artículo 11°.- Todo animal debe estar censado y disponer de cartilla sanitaria. Serán identificados mediante la utilización de un microchip electrónico debidamente autorizado, que será implantado en la parte lateral izquierda del cuello del animal.

Los tenedores de estos animales quedarán obligados a:

1.- En las vías y espacios públicos urbanos, así como en las partes comunes de los inmuebles colectivos, los animales de la especie canina deberán ir bajo control y sujetos mediante el uso de una correa, adecuada a las características del animal.

2.- En el caso de que los perros hayan de permanecer atados la mayor parte del tiempo, la longitud de la atadura no podrá ser inferior a tres veces la longitud del animal, tomada ésta desde el hocico hasta el nacimiento de la cola.

El extremo fijo del elemento de sujeción se anclará a una distancia tal del habitáculo del perro que no impida su cómodo y total acceso al mismo, así como a los recipientes que le proporcionen alimentación y bebida.

En todo caso es obligatorio dejarlos libres una hora al día, como mínimo, para que puedan hacer ejercicio, salvo que la longitud del sistema de sujeción a la atadura sea superior a diez veces la longitud del animal, en cuyo caso deberán dejarlos libres tres horas semanales.

3.- En las viviendas con espacios anexos que carezcan de cerca o vallado, o éstos fueran insuficientes, en caso de ausencia del propietario o poseedor, los perros se hallarán sujetos en la forma que se indica en el punto 2.

4.- Los perros guardianes de solares, obras, locales u otros establecimientos similares deberán estar bajo el control de su poseedor o propietario, a fin de que no puedan causar daños a personas o cosas ni perturbar la tranquilidad ciudadana, en especial en horas nocturnas.

En ausencia del poseedor o propietario, podrán permanecer sueltos si el solar, obra, local o establecimiento está suficientemente cercado o vallado.

5.- En los lugares cerrados donde existan perros sueltos, deberá advertirse su presencia en lugar visible y de forma adecuada.

6.- El poseedor de un perro, o el que se sirve de él, será responsable de los daños, perjuicios y molestias que causare, aunque se le escape o extravíe, conforme a lo establecido en el artículo 1905 del Código Civil.

CAPÍTULO 6°.- SOBRE EL CONTROL SANITARIO DE ANIMALES

Artículo 12°.- El Ayuntamiento ordenará el internamiento y/o aislamiento de los animales en caso de que se les hubieren diagnosticado o presenten síntomas de enfermedades transmisibles, tanto para el hombre como para otros animales, o que hubieren atacado al hombre.

13. artikulua.- Han-hemenka amorrua sortu delako, edo horren susmoa dagoelako, osasunaren alorrean alarma egoera baldin badago, albaitarien zaintzapean jarri beharko dira inori zauriak egin dizkioten txakur eta katuak. Udal albaitariek egingo diete behaketa horrelakoei hamalau egunez, udalaren Animaliak Babesteko Zentroan, zauriak izan dituzten pertsonei eman beharreko tratamendu medikoa zehazteko bidea egon dadin.

Egoera epizootikoak horretarako aukera ematen badu, eta betiere udalaren osasun zerbitzuek baimena emanda eta jabeak erantzukizuna bere gain hartzen badu, jabearen etxean egin ahal izango du behaketa kolegiatutako albaitari batek; gutxienez hiru bisita egin beharko ditu horrek, azkena koska egin ondorengo hamalaugarren egunean. Albaitariak udaleko osasun zerbitzuei eman beharko die emaitzen berri, albaitaritzako ziurtagiri ofizialaren bidez, osasun zerbitzukoek (hala badagokio, behaketaren azken egunean animalia aztertu ondoren) alta eman diezaioten animaliari.

7. KAPITULUA.- ANIMALIAK IBILGAILU ETA LEKU PUBLIKOETAN EGOTEA

14. artikulua.- Bide eta parke publikoetan, bai eta pertsonen igarobide diren beste leku batzuetan, txakurrak katea edo uhal eta lepoko bidez lotuta egongo dira; bestalde, muturrekoa erabiltzeko aginduko dute udaleko agintariek, baldin eta osasun egoerak hala eskatzen badu, eta egoera horrek dirauen artean. Muturrekoa eraman beharko dute arriskutsuak izan daitezkeen txakurrek, bai eta, jabearen arabera arriskutsu suerta daitezkeenak ere.

15. artikulua.- Debekatuta dago txakurren gorotzak uztea bide eta plaza publikoetan, haurrentzako parkeetan eta lorategietan, bai eta, oro har, apaingarrirako edota pertsonen igarobiderako diren guneetan ere.

Horrez gain, gorotzak espaloietan edo oinezkoentzako guneetan geratzen badira, jabeak edo animalia daramanak izango du gorotzak handik kentzeko ardura; horretarako, poltsa iragazgaitzetan sartuko ditu eta, poltsa itxi ondoren, paperontzietan, udal zerbitzuetakoek adierazitako beste ontzi batzuetan, edo etxeko zabor poltsan utziko ditu, edo bestela, estolderia sareko isurbideren batetik bota beharko du gorotza.

Animaliaren batek kalea zikintzen badu, herritarrek eskubidea izango dute jabeari edo animalia daramanari eskatzeko eragindako kaltea berehala konpon dezan.

16. artikulua.- Ez dago baimenduta animaliak honako leku hauetan sartzea:

a) Edozein janari mota egiteko, gordetzeko, garraiatzeko nahiz saltzeko erabiltzen diren aretoetan.

b) Ikuskizun publikoetarako aretoetan (kirol, kultura edo jolaserako ikuskizunak), bai eta igerileku publikoetan eta osasun zentroetan ere, animalien arteko lehiaketetan eta animaliak funtsezkoak diren ikuskizunetan izan ezik.

c) Hezkuntza zentroetan, betiere animaliak bertako formazio prozesuetan erabiltzen ez badira, zuzendariaren edo zentroko arduradunaren erantzukizun pean. Areto horien titularrek debekuaren berri ematen duten seinaleak jarri beharko dituzte ageriko lekuan.

17. artikulua.- Ostalaritza areto publikoen jabeek, hala nola hotel, ostatu, jatetxe, taberna, kafetegi eta antzekoetakoek, euren irizpideen arabera, animaliak bertara sartu eta bertan egotea galarazi ahal izango dute. Edonola ere, eskatu beharko dute animaliek dagokien identifikazioa eramateko eta uhalez lotuta joateko. Halaber, animaliek muturrekoa eraman beharko dute, baldin eta euren ezaugarriek eta izaerak hala eskatzen badute. Ezin izango dira inola ere sartu janariak egin eta prestatzeko diren lekuetara.

18. artikulua.- Gida-txakurrak aurreko debekuetatik salbuetsita daude, janariak egin, gorde edo saltzen diren tokietarako sarbideari dagokionetik izan ezik, betiere txakur horiek gaixotasun, oldarkortasun edo garbitasun-ezaren zantzurik ez badute, eta ezin badiote pertsonen osasunari kalterik eragin. Gida-txakur batek lagunduta doazen pertsona ezinduek garraio publikoak erabiltzeko eskubidea dute.

19. artikulua.- Animaliak komunitatearen leku pribatuetara sartu eta egoteari dagokionez (kultura elkarteak, jolas lekuak, auzo elkarteek komunean erabiltzen dituzten guneak, eta abar), entitate horietako arauen arabera jokatu beharko da.

Artículo 13°.- Cuando las circunstancias de alarma sanitaria lo exijan, debido a la presencia de brotes de rabia, o de sospecha de la misma, se procederá a la observación veterinaria de los perros o gatos que hayan producido lesiones comprobadas. Esta observación se efectuará en el Centro de Protección Animal del Ayuntamiento, durante un período de catorce días, por los Veterinarios Municipales, con el fin de posibilitar la determinación médica del tratamiento ulterior de las personas afectadas.

Sí la situación epizoótica lo permite, y siempre con la aprobación de los Servicios Sanitarios Municipales y bajo la responsabilidad del propietario, expresamente aceptada, podrá efectuarse la observación del animal en el domicilio del propietario, por un veterinario colegiado, que estará obligado a realizar, por lo menos, tres visitas, la última el día decimocuarto desde la mordedura, dando cuenta a los Servicios Sanitarios Municipales, mediante Certificado Oficial Veterinario, del resultado de la misma, para que éstos procedan a dar de alta al animal, previo reconocimiento en el último día de observación, si procediera.

CAPÍTULO 7°.- SOBRE LA PERMANENCIA DE ANIMALES EN VEHÍCULOS Y LUGARES PÚBLICOS

Artículo 14°.- En las vías y parques públicos, y otros lugares de tránsito de personas, los perros irán sujetos mediante cadena o correa y collar; el uso de bozal será ordenado por la Autoridad Municipal cuando las circunstancias sanitarias así lo aconsejen y mientras duren estas. Tendrán que circular con bozal los perros considerados potencialmente peligrosos, y aquellos otros cuya peligrosidad, a juicio de su propietario, sea razonablemente previsible.

Artículo 15°.- Queda prohibido abandonar las deyecciones de los perros en las vías y plazas públicas, parques infantiles, jardines y en general, en cualquier lugar destinado al ornato y/o tránsito de personas.

No obstante, si las deyecciones se depositasen en las aceras o zonas de tránsito peatonal, el propietario o persona que conduzca al animal es responsable de la eliminación de las mismas, mediante el depósito dentro de bolsas impermeables y cerradas en las papeleras u otros elementos de contención indicados por los Servicios Municipales; la eliminación a través de las bolsas de recogida de basura domiciliaria o la introducción de los excrementos en los sumideros de la red de alcantarillado.

